Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko apirilaren 21a, asteartea — 73 — Martes, a 21 de abril de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA | 2 | ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*0165 LI/2020 Foru Agindua, apirilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko araubide komuneko larre aprobetxamendua egiten duten behi aziendako abereek eta horien jatorrizko ustiategiek bete behar dituzten osasun baldintzen oinarri arautzaileak garatzen dituena.*

Behien infekziozko errinotrakeitisa (aurrerantzean «IBR»), I motako (HVB-1) behien herpes birusak eragindako gaixotasun infekto-kutsakor bat da; animalietan arnasa hartzeko eta ugaltzeko seinaleak sorrarazten dituena, sorrak batzuetan (subklinikoak), eta galera ekonomikoak sor ditzakeena ugalkortasun ezagatik, baita animaliak, hazia, obuluak eta enbrioiak merkaturatzeko murrizketagatik ere.

Europako Batzordearen 2004ko uztailaren 15eko 2004/558/EE Erabakiaren bidez, Kontseiluaren 64/432/EEE Zuzentaraua aplikatzen da, Europar Batasuneko herrialdeen artean behi espezieko abereak elkartrukatzeko berme osagarriei dagokionez. Horren arabera, gaixotasunaren existentziak garrantzizko murrizketa komertzialak eragiten ditu, hala nola abere talde seropositiboen hazia, obuluak eta enbrioiak merkaturatzeko debekua; eta kutsatuta dauden animalia biziak garraiatzeko debekua, gaixotasunik gabeko herrialdeetara edo guneetara edo gaixotasuna kontrolatzeko eta desagerrarazteko programa onartuta daukaten herrialdeetara edo guneetara, salbu eta osasun neurri espezifiko batzuk betetzen badituzte.

Geroz eta herrialde gehiago dira Europan behien infekziozko errinotrakeitisa (IBR) kontrolatzeko eta desagerrarazteko programak dituztenak. 2019ko irailaren 27ko 554/2019 Errege Dekretuaren bidez, behi aziendako ustiategietan IBRa prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko ekintzen oinarriak ezarri dira eta baita gaixotasun horren aurka borrokatzeko borondatezko programa bat ere. Era berean, behi aziendako ustiategiek lortu dezaketen IBRaren aurkako osasun kalifikazio ofizial desberdinak ezartzen dira, eta kalifikazio horiek lortzeko eta mantentzeko baldintzak adierazten dira.

8/2003 Legeak, apirilaren 24koak, animalien osasunari buruzkoak, xedatzen du ustiategi desberdinetako abereak biltzen dituzten ustiategiek baldintza bereziak bete beharko dituztela, azpiegiturari, kokapenari eta osasun kontrolei dagokienez, bereziki, instalazio horietan sartzen diren animalia sorta bakoitzaren jatorrizko ustiategien osasun egoerari dagokionez. Eta, hala badagokio, beharrezkotzat jo daiteke animalia guztiak osasun kalifikazio jakin bat duten ustiategietakoak izatea.

Araubide komuneko larre aprobetxamendua egiten duten animaliak osasun kalifikazio baxuagoa duten ustiategikoak izan daitezke, eta, horrek, arrisku bat eragin dezake osasun kalifikazio altuagoko ustiategietan ezarrita dagoen IBRaren aurkako programan.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Orden Foral 0165 LI/2020, de 17 de abril, por la que se desarrolla la normativa reguladora de las condiciones sanitarias que deben cumplir los animales de la especie bovina, y las explotaciones de origen de los mismos, que tengan acceso al aprovechamiento de pastos en régimen común del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

La rinotraqueítis infecciosa bovina (en adelante «IBR») es una enfermedad infectocontagiosa causada por el herpesvirus bovino tipo I (HVB-1), que ocasiona en los animales signos respiratorios y reproductivos, en ocasiones inaparentes (subclínicos) y que puede ocasionar pérdidas económicas por los problemas de infertilidad, así como por las limitaciones al comercio de animales, semen, óvulos y embriones.

Considerando que de acuerdo con lo establecido por la Decisión 2004/558/CE, de la Comisión, de 15 de julio de 2004, por la que se aplica la Directiva 64/432/CEE del Consejo en lo que respecta a las garantías adicionales para los intercambios intracomunitarios de animales de la especie bovina, la existencia de esta enfermedad implica importantes limitaciones comerciales como la prohibición de la comercialización de semen, óvulos y embriones de rebaños seropositivos y prohibición del transporte de animales vivos infectados a aquellos países o zonas que han sido declarados libres o que tienen un programa de control y erradicación aprobado, salvo que se cumplan una serie de medidas sanitarias específicas.

Considerando que cada vez son más los países que tienen en marcha programas de control y erradicación en Europa de la rinotraqueítis infecciosa bovina o IBR, mediante el Real Decreto 554/2019, de 27 de septiembre, se han establecido las bases de las actuaciones para la prevención, control y erradicación del IBR en las explotaciones de ganado vacuno y un programa voluntario de lucha contra dicha enfermedad, así como las distintas calificaciones sanitarias oficiales que pueden obtener las explotaciones de ganado vacuno frente al IBR, señalándose las condiciones para la obtención o el mantenimiento de las mismas.

Considerando que la Ley 8/2003, de 24 de abril, de sanidad animal, establece que aquellas explotaciones en los que se reúne ganado procedente de distintas explotaciones deberán estar sometidos a especiales exigencias en cuanto a su infraestructura, ubicación y control sanitario, especialmente en lo que se refiere a la situación sanitaria de las explotaciones de origen de cada partida de animales que ingresen en estas instalaciones, pudiéndose, en su caso, establecer la necesidad de que todos los animales procedan de explotaciones con determinada calificación sanitaria.

Considerando que los animales que participan en aprovechamiento de pastos en régimen común, lo hacen con animales de otras explotaciones que pueden tener una calificación sanitaria inferior generando un riesgo que va en contra del programa de lucha frente a IBR implantado en las explotaciones ganaderas de calificación sanitaria superior.

EK\CV GAO-I-2020-01847

554/2019 Errege Dekretuak, irailaren 27koak, ezartzen du «IBR1», «IBR1-», «IBR2» eta «IBR3» bezala kalifikatutako ustiategietatik datozen animalien lekualdatzea egiteko, osasun kalifikazio baxuagoa duten ustiategietako animaliekin batera araubide komuneko larre aprobetxamenduetan parte hartzeko, animaliak txertatuta egongo direla larrera lekualdatu aurretik.

3/1979 Lege Organikoak, abenduaren 18koak, Euskal Herriko Autonomia Estatutuarenak, ezartzen du Euskadiko Autonomia Erkidegoak eskumen osoa duela nekazaritzan eta abeltzaintzan, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera.

27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoak, 7 b) 2. artikuluan ezartzen du lurralde historikoei dagokiela erakunde komunek emandako arauak garatzeko eta betetzeko eskumena abereen ekoizpen eta osasun arloetan.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da araubide komuneko larre aprobetxamendua egiten duten animaliek eta beren jatorrizko ustiategiek bete beharko dituzten baldintzak ezartzea, horrek arriskurik sor ez dezan ustiategietan ezarritako IBRaren aurkako programan. Horrela, araubide komuneko larre aprobetxamendua egiten duten abeltzaintza ustiategi guztiek osasun berme guztiak bete beharko dituzte.

Foru agindu honek betetzen ditu herri administrazioek legegintza ekimenean eta erregelamenduak egiteko ahalmenean kontuan izan behar dituzten erregulazio oneko printzipioak, hala nola premia, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta eraginkortasun printzipioak, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Erkideari buruzkoak, 129. artikuluari jarraikiz. Ondorio horietarako, adierazten da premia eta eraginkortasun printzipioak betetzen direla eta araua proportzionaltasun printzipioarekin bat datorrela, lehen aipatutako helburuak lortzeko ezinbestekoa den erregulazioa duelako, amaierako hartzaileentzat ezinbesteko betebeharrak ezarriz. Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioarekin bat dator. Gardentasun printzipioari dagokionez, idazketan, ukitutako interesak ordezkatzen dituzten entitate adierazgarriei kontsultatu zaie. Efizientzia printzipioari dagokionez, arauaren funtsa betetzeko beharrezkoak diren karga administratiboak bakarrik sartu dira.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. Objektua.*

Foru agindu honen objektua da Gipuzkoako Lurralde Historikoko araubide komuneko larre aprobetxamendua egiten duten behi aziendako abereek eta horien jatorrizko ustiategiek bete behar dituzten osasun baldintzen arau erregulatzaileak garatzea, jarduera horrek osasun arriskurik ez sortzeko ustiategietan ezarritako behien infekziozko errinotrakeitisaren edo IBR gaixotasunaren aurkako programan.

*2. artikulua. Aplikazio eremua.*

Foru Agindua aplikatuko zaie Gipuzkoako Lurralde Historikoko eremuaren barruan araubide komuneko larre aprobetxamendua egiten duten behi aziendako ustiategi guztiei; eta, ondorioz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko eremuaren barruan dauden eta bertan araubide komuneko larre aprobetxamendua egiten den ustiategi guztiei, beren izaera juridikoa eta titulartasuna alde batera utzita.

Considerando que el Real Decreto 554/2019, de 27 de septiembre, establece que para poder realizar el movimiento de animales procedentes de explotaciones calificadas como «IBR1», «IBR1-», «IBR2» e «IBR3» que vayan a participar en aprovechamientos de pastos en régimen común, con animales de otras explotaciones que tengan una calificación inferior, se encontrarán vacunados previo a su traslado al pasto.

Considerando que la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco establece que la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en agricultura y ganadería, de acuerdo con la ordenación general de la economía.

Considerando que la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos establece en el artículo 7, b) 2 que corresponde a los Territorios Históricos el desarrollo y ejecución de las normas emanadas por las Instituciones Comunes en producción y sanidad animal.

Por todo lo anterior resulta necesario establecer requisitos que habrán de cumplir las explotaciones de origen y los animales que accedan al aprovechamiento de pastos en régimen común para que ello no genere riesgos sanitarios que vayan contra el programa de lucha frente a IBR instaurado en las mismas. De este modo, todas aquellas explotaciones ganaderas que tengan acceso al aprovechamiento de pastos en régimen común lo harán con las máximas garantías sanitarias.

Esta Orden Foral observa los principios de buena regulación conforme a los cuales deben actuar las Administraciones Públicas en el ejercicio de la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria, como son los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia, previstos en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. A estos efectos, se pone de manifiesto el cumplimiento de los principios de necesidad y eficacia y que la norma es acorde al principio de proporcionalidad, al contener la regulación imprescindible para la consecución de los objetivos previamente mencionados, imponiendo las obligaciones indispensables para los destinatarios, e igualmente se ajusta al principio de seguridad jurídica. En cuanto al principio de transparencia, en su elaboración se ha consultado a las entidades representativas de los intereses afectados. Con respecto al principio de eficiencia las cargas administrativas incorporadas se limitan a las necesarias para dar cumplimiento a la propia esencia de la norma.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Objeto.*

La presente Orden Foral tiene por objeto desarrollar la normativa reguladora de las condiciones sanitarias que deben cumplir los animales de la especie bovina, y las explotaciones de origen de los mismos, que tengan acceso al aprovechamiento de pastos en régimen común del Territorio Histórico de Gipuzkoa para que ello no genere riesgos sanitarios que vayan contra el programa de lucha frente a la rinotraqueítis infecciosa bovina o IBR instaurado en las mismas.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

Esta Orden Foral es de aplicación a todas las explotaciones de ganado bovino que tengan acceso al aprovechamiento de pastos en régimen común ubicados dentro de los límites territoriales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incluyendo, en consecuencia, a todas aquellas explotaciones, independientemente de la forma jurídica y la titularidad de las mismas, en las que se realice el aprovechamiento de pastos en régimen común y cuya superficie se encuentre dentro de los límites territoriales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2020-01847

*3. artikulua. Definizioa.*

Foru agindu honen ondorioetarako, araubide komuneko larre aprobetxamendua da gutxienez jatorri desberdineko bi ustiategietako abereen aldi bereko larre aprobetxamendua.

*4. artikulua. Abereen jatorrizko ustiategiek bete beharreko baldintzak.*

Araubide komuneko larre aprobetxamendua egiten duten animalien abeltzaintza ustiategiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

a) IBR gaixotasunaren aurkako borondatezko programari atxikita egotea, 2019ko irailaren 27ko 554/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, zeinaren bitartez ezartzen diren behien infekziozko errinotrakeitis gaixotasuna prebenitu, kontrolatu eta desagerrarazteko ekintzen oinarriak eta gaixotasun horren aurka borrokatzeko borondatezko programa nazionala.

b) IBR gaitzari dagokionez, osasun egoeraren arabera sailkatuta egotea, 554/2019 Errege Dekretuak, irailaren 27koak, ezartzen duenari jarraikiz.

c) 554/2019 Errege Dekretuak, irailaren 27koak, aurreikusten duen txertaketa programa betetzea, IBR4 kalifikazioa duten edo lortzeko prozesuan dauden ustiategien kasuan izan ezik. Ustiategiko animalia guztiak txertatuko dira Espainian merkaturatzeko baimenduta dauden txerto bakoitzaren fitxa teknikoaren arabera.

d) 2020. urtean zehar, artikulu honen lehenengo bi baldintzak salbuetsiko dira, baldin eta ustiategian animalia guztiak txertatzen badira aurreko c) apartatuan aipatzen den txertaketa programaren baldintzen arabera.

*5. artikulua. Behi aziendak behar duen osasun dokumentazioa araubide komuneko larre aprobetxamendua egiteko.*

1. Araubide komuneko larre aprobetxamendua egiteko aukera duen behi aziendak ondorengo dokumentazioa eraman beharko du:

— Animaliaren jatorri eta osasun gida.

— Jatorrizko ustiategiko abere osasuneko agintari eskudunak emandako ziurtagiria. Bertan, adieraziko da IBRaren aurkako osasun kalifikazioa, IBRaren aurkako azken osasun proben datak, eta abere bakoitzari jarritako txertoak, hala badagokio. Ziurtagiri hori ez da beharrezkoa izango, baldin eta informazioa animaliaren jatorri eta osasun gidan jasota badago.

2. Animaliak berriz ere jatorrizko ustiategietara eramateko, beharrezko izango da animalien jatorri eta osasun gida.

*6. artikulua. Animalien titulartasuna.*

Araubide komuneko larre aprobetxamendua egiteak ez du eraginik izango abereen titulartasunean, eta ez zaie baja emango jatorrizko ustiategian.

*7. artikulua. Arau hausteak.*

Foru agindu honetan xedatutakoa betetzen ez bada, 8/2003 Legeak, apirilaren 24koak, abere osasunari buruzkoak, ezarritako urraketa eta zigor arauak aplikatuko dira, bide zibilean, penalean edo bestelakoren batean eska daitekeen erantzukizuna baztertu gabe.

*Amaierako xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko apirilaren 17a.—Imanol Lasa Ceberio, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko foru diputatua. (1847)

*Artículo 3. Definición.*

A los efectos de esta Orden Foral, se entiende por aprovechamiento de pastos en régimen común el aprovechamiento simultáneo de pastos por animales procedentes de al menos dos explotaciones de origen distintas.

*Artículo 4. Requisitos a cumplir por las explotaciones de origen de los animales.*

Las explotaciones ganaderas cuyos animales tengan acceso al aprovechamiento de pastos en régimen común deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Estar adheridas al programa voluntario de lucha contra el IBR establecido en el Real Decreto 554/2019, de 27 de septiembre, por el que se establecen las bases de las actuaciones de prevención, control y erradicación de la rinotraqueítis infecciosa bovina y se establece un programa nacional voluntario de lucha contra dicha enfermedad.

b) Estar clasificadas en función de la situación sanitaria respecto al IBR según lo establecido en el citado Real Decreto 554/2019, de 27 de septiembre.

c) Cumplir el programa vacunal previsto en el Real Decreto 554/2019, de 27 de septiembre, salvo en el caso de explotaciones con calificación IBR4 o en proceso de obtener dicha calificación, vacunando a todos los animales que integran la explotación de acuerdo a la correspondiente ficha técnica de cada una de las vacunas marcadas autorizadas para su comercialización en España.

d) Durante el año 2020 se podrá exceptuar del cumplimiento de las dos primeras condiciones de este artículo siempre que la explotación haya vacunado todos sus animales de acuerdo al programa vacunal al que se hace referencia en el apartado c) anterior.

*Artículo 5. Documentación sanitaria necesaria para el acceso al aprovechamiento de pastos en régimen común para los animales bovinos.*

1. Los animales bovinos que tengan acceso al aprovechamiento de pastos en régimen común deberán ir acompañados de la siguiente documentación:

— La guía de origen y sanidad pecuaria.

— Un certificado emitido por la autoridad competente en sanidad animal de la explotación de origen en la que se indique la calificación sanitaria frente al IBR, la fecha de la realización de las últimas pruebas sanitarias frente al IBR, así como las vacunas administradas a cada animal en su caso. Este certificado no será necesario en el caso de que dicha información esté incorporada en la guía de origen y sanidad pecuaria.

2. El retorno de los animales a la explotación de origen se deberá realizar con la guía de origen y sanidad pecuaria.

*Artículo 6. Titularidad de los animales.*

El acceso de los animales al aprovechamiento de pastos en régimen común no afectará a la titularidad de los mismos por lo que no causarán baja en la explotación de origen.

*Artículo 7. Infracciones.*

En caso de incumplimiento de lo dispuesto en esta Orden Foral, será de aplicación el régimen de infracciones y sanciones establecido en la Ley 8/2003, de 24 de abril, de sanidad animal, sin perjuicio de las responsabilidades civiles, penales o de otro orden que puedan concurrir.

*Disposición final.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 17 de abril de 2020.—El diputado foral de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, Imanol Lasa Ceberio. (1847)

EK\CV GAO-I-2020-01847